

Usurbilgo Udala



2016KO OTSAILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:05etan batzarrari hasiera eman zaio.


Usurbilen, 2016ko otsailaren 23an, arratsaldeko 18:05etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO URTARRILAREN 18TIK OTSAILAREN 11RA (2016/0027-2016/0115)

Alkatetzak 2016ko urtarrilaren 18tik otsailaren 11ra bitartean (2016/0027– 2016/0115) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala



2.- NOAUA! KULTUR ELKARTEAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Xuban Zubiria zinegotziak hitza hartu du eta gai honi buruzko azalpenak eman ditu.

Puntu hau batzordetik pasa zela adierazi du eta helburua dela dio Noaua!ren hurrengo lau urtetarako jarduna ahalbideratzea. 2012ko hitzarmena oinarri bezala hartu eta orain aurkezten dena horren jarraipena dela esan du.

Jarraian, hitzarmenak jasotzen dituen klausulak irakurri ditu.

Batzarkideek, Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio testuak:

“Esp.zk.: KE.02/2016-0004

Ikusirik

Usurbilgo Udalaren Diru-laguntzak Arautzeko ordenantzaren 2. atalean hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

Bide honetatik, 2012ko apirilaren 20an Noaua!k eta Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin aldizkaria eta webgunea finantzatu dira. Hitzarmenaren indarraldia lau urterakoa zen, eta, honenbestez, 2016ko apirilean amaitzen da hitzarmenaren indarraldia.

Noaua! eta Udalak egin dituzten bileren ondorioz, aproposa ikusi dute beste lau urterako hitzarmena sinatzea.

Hitzarmen honen helburua Noaua! Kultur Elkartearekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da.


Kontuan harturik

- 2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

- Administrazio Publikoetako Kontratuen Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)

- Apirilaren 2ko Toki Korporazietako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badao.

- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.



Usurbilgo Udala



- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. (GAO, 2008-07-01)
- Usurbilgo Udalaren Euskararen Udal Ordenantza (1989-08-09)
- Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera plana (2013-2017)
- 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.
- Usurbilgo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana .
- Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.

2016ko otsailaren 15ean egindako Kultura. Euskara eta Gazteria Batzordean ebazpen-proposamen honen bozketak emaitza hau izan zuen: ebazpen proposamena aho batez onartu zen Alaitz Aizpurua, Xuban Zubiria, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin.

Honenbestez, Kultura, Euskara eta Gazteria Batzordeak, aho batez, Osoko Bilkurari egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak aho batez honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Noaua-k izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Hirugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Laugarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Bosgarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala



Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

3.- 2016 URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak hitza hartu du puntu honi buruzko azalpenak emateko.

Lanpostuen zerrenda eta Plantilla organikoa urte amaieran onartu ziren arren, urtarrilean lanpostu bat jubilatuz zela eta aldaketa hori egitea egoki ikusi dutela zehaztu du. Batez ere, onartu beharreko OPE eta bete beharreko lanpostuei eragiten dielako.

Lanpostu hori operario 8a dela zehaztu du.

Unea aprobetxatuz beste zuzenketa txiki bat egitea ere egoki ikusi dela adierazi du. Bi administrariaren lanpostua, biak lanpostu erdiak, bakoitza %50ean agertzen ziren eta interpretazio okerra egin zitekeenez hori zuzentzea erabaki dela esan du.


Batzarkideek, Pertsonal Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“2016ko Lanpostuen zerrenda eta Plantilla Organikoa 2015eko abenduaren 23ko udalbatzan onartu zen. Ondoren, erreklamaziorik egon ezenez, 2016ko urtarrilaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2016ko Urtarrilaren 2an operario 8a adskribaturik dagoen langilea jubilatuz egin da eta plaza hutsik geratzen da. Beraz, lanpostuen zerrendan dagokion aldaketa egitea komeni da. Bestetik, orduko titularrak postuari dagokion B gida baimena edukitzeaz salbuetsita zegoen. Hortaz hori ere egokitu behar da.

Bestetik, zuzenketa formal bat adostu da, Kultura, Euskara eta Gazteriako Administrazioan postu erdia %50ean izan ordez (adierazteko orduan gaizki ulertuak eragin ditzake), berez postu bat %50an delako. Berdin gertatzen da Garapen ekonomikoko administrazioarekin.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunez erakusketa publikoan jarri behar da, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzateke. Behin betikotzat onartu ondoren,



Usurbilgo Udala



Lanpostuen Zerrendaren aldaketari dagokion testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Gaia 2016ko otsailaren 17an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarria

- Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: 2016ko lanpostuen zerrendan eta Plantilla Organikoan operario 8 lanpostua hutsik dagoela adieraztea.

BIGARREN: Baldintza berezietan orduko titularrak zuen salbuespena ezeztatu eta postu horri B gida baimena dagokiola adieraztea.

HIRUGARREN: Kulturako administraren eta Garapen ekonomikoko administrari lanpostuen kopurua zuzentzea, bi postu bakoitza %50ean direla adieraziz.

LAUGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik eta Lanpostuen Zerrenda eta Plantillaren aldaketari dagokion testua Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERARAKO ETA KOORDINAZIORAKO I. UDAL PROTOKOLOA (GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO) ONARTZEA.

Puntu honi buruzko azalpenak emateko Josune Estella zinegotziak hitza hartu du.



Usurbilgo Udala



Irizpidean jasotzen diren aurrekariak aipatu ditu eta zehaztu du Udala 2011n hasi zela I. Protokoloa lantzen. Eragile guztiekin elkartu ondoren 2011. urtean bertan diagnosa garatu zela zehaztu du. Protokolo honek halere geldiune bat izan zuela adierazi du, Ertzaintzak protokoloa gaztelaniara itzultzeko eskatu baitzuen. Itzulpena egin ondoren, Ertzaintzako arduradunak ekarpenak egin eta protokoloa osatu zela adierazi du.

Azkenik, 2016ko otsailaren 18ko Parekidetasun eta Aniztasun batzordean onespena eman zitzaioela esan du.

Gaineratu du inguruan Usurbilgo Udala izan dela lehenengoa horrelako protokolo bat aurrera eramaten.

Protokoloa sinatu ondoren, koordinaziorako mahai teknikoa bilduko dela esan du.

Helburua dela dio indarkeria egoerak detektatzea eta arreta zuzen bat ematea edozein indarkeria mota jasotzen duen emakumeari.

Batzarkideek, Parekidetasun eta Aniztasun Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: BE.01 / 2016 - 0004

AURREKARIAK:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikuluan zehazten denez, foru-administrazioek eta tokikoek lankidetzak akordioak eta jarduera-protokoloak bultzatu behar dituzte, beren lurralde-eremuan. Tokian tokiko protokoloek Estatuan eta EAEn ezarpen orokorrekoak diren protokoloak errespetatu behar dituzte, haietan ezarritako jarduera-xedapenetara eta irizpideetara egokitu beharko dute. Eta hauexek dira:

- Emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak deuseztatzeari buruzko konbentzioaren aukerako protokoloa, 1999.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmena, 2001.
- Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana, 2002-2004.
- Etxeko indarkeria eta genero-indarkeria jasaten dituzten biktimak babesteko, - Segurtasuneko Indar eta Kidegoek organo judizialarekin koordinatu ta jarduteko protokoloa, 2004.
- Etxeko indarkeria jasaten duten biktimak babesteko agindua ezartzeko protokoloa, 2003.
- Etxeko indarkeria jasaten duten biktimei ezarritako babes-agindua eraginkorra izateko koordinazio-protokoloa gizarte-zerbitzuen alorrean, 2004.
- Generoko Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Legea eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua eraginkorra izateko lurraldekako koordinazio-protokoloak, 2005eko ekaina.
- Etxeko tratu txarrei buruzko osasun-protokoloa.



Usurbilgo Udala



- Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten biktimenzako harrera eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programa, 2004-2005.

Erakundeen arloan, berriz, Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza eta Emakumearen gaineko Indarkeriaren Estatuko Behatokia sortu dira, eta emakumearen gaineko indarkeriaren auzietarako epaitegiak, fiskaltza espezializatuak eta ofiziozko txandak eratu dira, besteak beste, jarduketa eta koordinazio protokolo ugari ere. Erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Aipatzekoak dira Erakundeen arteko Hitzarmenak:

a) Erakundeen arteko I. Hitzarmena. 2001eko urriaren 18an, etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko Erakunde arteko Hitzarmena sinatu zen, eta horren bidez indarrean jarri ziren Protokoloetan hartutako konpromisoak.

b) Erakundeen arteko II. Hitzarmena. 2009ko otsailaren 3an, II. Hitzarmena izenpetu zen, batetik, 2001eko erakunde arteko I. Hitzarmenaren edukiak inguruabar berrietara egokitze ko eta, bestetik, protokoloak, lankidetzeta-akordioak eta bestelako tresna juridiko

batzuk osatzeko. II.Hitzarmenean, erakunde sinatzaileek hartutako konpromisoak eta jarduera-protokoloak jasotzen dira, hainbat eremutan esku-hartzeko: osasun-arloa, polizia-arloa, arlo judiziala, hezkuntza, ...

EAEko VI. Berdintasun Planaren esku hartzeko III. Ardatza, emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea da. Ardatz honen baitan bi programa jasotzen dira:

7. Sentsibilizazioa eta prebentzioa

8. Detekzioa eta arreta

Usurbilgo Udaleko emakume eta gizonen berdintasunerako I. Planean, indarkeria desagerrarazteko ardatza txertatzen da planak jasotzen dituen esku hartze arlo guztietan.

Udalaren eskuhartze arloan, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko ardatzean, honakoa jasotzen da:

1. Emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-erasoak prebenitzeko eta arreta hobetzeko, Tokiko Protokoloa lantzea eta garatzea.


U.I.1.1 Emakumen aurkako indarkeriari aurre egiteko Tokiko Protokoloa lantzea, protokoloan inplikaturako eragile guztien parte hartzearekin, egoeraren azterketatik abiatuta (arreta hobetzeko beharren azterketa egin, zerbitzua eman edo jaso duten pertsonen iritziak jaso...).

U.I.1.2 Tokiko protokoloa ezagutzera ematea; besteak beste, gida bat sortuz

U.I.1.3 Udalak landutako Protokoloa garatzea, Protokoloaren inguruan adostutakoa martxan jarritz, horretarako adostutako koordinazioko egiturekin batera.

U.I.1.4 Protokoloan jasotakoak egin diren eta nola egin diren ebaluatzea.

Udalak, 2011ean Sortzen enpresa kontratatu zuen "ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERARAKO ETA KOORDINAZIORAKO I. UDAL PROTOKOLOA (GENERO



Usurbilgo Udala



INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO)” garatzeko.

Horretarako prozesu bat jarri zen abian, lehenik “Emakumeen kontrako indarkeria eta erakundeen arreta Usurbilen” izeneko diagnosa garatu zen 2011ean. Diagnosiaren helburua, genero indarkeriaren prebentziarako eta indarkeria mota hau jasan duten emakumeei laguntza eskaintzeko udal politiken diagnosa egitea izan zen.

Ondoren formazioa landu zen, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan, arretan parte hartzen duten eragileekin (udaltzainak, gizarte langileak, osasun langileak, etab.). Ondorengo urratsa protokoloa definitzeko prozesua abiatzea izan zen eragileen parte hartzearekin adostuz, azkenik, protokoloaren definizioa zehazteko.

Protokoloaren azken bertsioa 2012an jaso zuen Udalak. Hortaz, Udala protokoloetan parte hartzen zuten erakundeekin harremantean jarri zen protokolo zirriborroa aztertu zezaten haien azken oniritzai jasotzeko. Ertzantzako arduradunek euskaraz ez zekitela eta protokoloen testua gaztelerara itzultzea adostu zen.

Protokoloetako dokumentua, erakunde guztiei bidali zitzairen. Erakunde bakoitzetik, ekarpenak eta proposmenak jaso ziren Ertzantzatik izan ezik. 2014ean Azkenik, Ertzaintzako arduradunak ekarpenak bideratu zituen eta dokumentua osatu zen.

Guzti hau kontutan izanik, Parekidetasun eta Aniztasun batzordeak, 2016ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Miren Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, aho batez, Udalbatza Plenoari egindako irizpidea kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa (genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobea emateko) onartzea.

BIGARRENA: Alkateari “Erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal protokoloa (genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobea emateko) sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Akordio honen onarpenaren berri gainerako erakundeei berri ematea eta protokoloa onartzea GAO-n argitaratzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala



5.- USURBILGO HONDAKINEN TRATAMENDUARI BURUZKO HERRI GALDEKETA BURUTZEKO GALDERA ONARTZEA ETA IZAPIDETZA ABIAN JARTZEA.

Alkateak adierazi du gai hau Antolakuntza Batzordetik diktaminatuta datorrela.

Gobernu taldeak egiten duen irakurketa da, batetik, herritarren eskaera bati erantzunez egiten den proposamena dela hau, beraz, herriari hitza emateko ariketa bat izango dela eta, bestetik, ariketa honen gaiari dagokionez proposatzen den galderaren egokitasuna eta legezkotasuna aipatu ditu.

Galdera dela dio: "Usurbilgo hondakinak tratatzeko, erraustea egoki iruditzen al zaizu?"


Galderaren egokitasunaz eta legezkotasunaz aipatu du galdeketak egiteko legediak betebeharreko baldintza batzuk zehazten dituela eta momentu honetan Euskal Autonomi Erkidegoan ez dagoela indarrean horrelako galdeketak egiteko legedia berezirik, dagoen legedia estatukoa dela adierazi du. Tartean, baldintzarik gogorrenak edo zorrotzenak dira, batetik, eskumenari dagokiona, non esaten den horrelako galdera bat herrian egin ahal izateko udalak eskumen hori eduki behar duela, baina kasu honetan 7/85 Legeak bere 25. artikuluan esaten duela dio hondakinaren tratamendua badela udalen eskumena, beraz, bete-betean udal eskumen bati buruz ariko ginatekeela azpimarratu du. Bestetik, galderaren esparrua herria izan behar duela zehazten da galdeketak egiteko legedian eta kasu honetan galderan ondo zehazten den moduan Usurbilgo hondakinez ari garela esaten da. Beraz, bi baldintza hauek betetzen direla esan du. Gaineratu du badirela ere beste baldintza batzuk ez direnak horren zorrotzak, besteak beste, galderak herrian garrantzia izan behar duela, hau da, galdera ezin daitekeela izan mamirik edo edukirik gabekoa, kasu honetan jasotako sinadurek ere hala erakusten dutela esan du galdera honek herrian ardura, zalantza eta kezka sortzen dituela. Beraz, udalari herriaren eskaera horri baietz erantzutea eta dagozkion pausoak ematea dagokiola adierazi du.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du kontsulta egitearen aurka ez daudela baina Antolakuntza Batzordean aipatu zuten bezala, oztoporik ez dutela jarriko baina abstenitu egingo direla.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du bera ere abstenitu egingo dela.

Jarraian, alkateak galdera ekarri duten eta publikoan dauden herritarrei hitza eman die.

Publikotik hitza hartu dute. Galdeketa bultzatzen duten herritar taldeko kide bezala aurkeztu da eta adierazi du ikusita nolako garrantzia duen eta nolako kezka pizten duen gai honek gure herrian, herriari azalpen bat eman behar zaiola bere eskaera bat babesten ez denean. Hemen soilik entzun dutena da hainbat zinegotzi galdeketaren



Usurbilgo Udala



aurka ez daudela baina abstenitu egingo direla, mila herritar baina gehiagok eskatutakoa zergatik ez duten babesten azaltzea eskatu die.

Andoni Atxegak erantzun dio lehen esan duten moduan beraiek argi dutela galdeketa egiteko ez dutela oztoporik jarriko.

Fermin Orue-Echevarriak ere ildo berdinetik erantzun dio, ez dutela oztoporik jarriko.

Alkateak errespetu osoz adierazi du berarentzat ez dela berdina oztoporik ez jartzea edo babestea.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp. Zenbakia: ID.07/2016-0088

Ikusirik

2016ko urtarrilaren 29ko datarekin, 1185 herritarrek izenpetutako eskaera bat jaso da udal honetan. Bertan honakoa eskatzen zaio Usurbilgo Udalari: “Lehenbailehen egin dezala herri kontsulta bat, hiritarrei galdetuz ea erraustegia egitea nahi duten ala ez”.

Udaleko gobernu-taldeari iruditzen zaio eskaera hori onartu beharrekoa dela bi arrazoi nagusirengatik: batetik, gaiak kezka eta ezinegon handia sortzen duelako herritarrengan, eta horren adierazle delako zenbat sinadura jaso diren; bestetik, herritarrek erabakietan parte hartzeko eskubidea dutelako. Hortaz, gobernu-taldeak burutu egin nahi du eskatutako kontsulta. Horretarako prozesu bat bideratu nahi du, non legeak eskatzen dituen baldintzak beteko diren.

Hasteko, udalbatzarrari eskatzen zaio herri-kontsulta bat egiteko prozesuari babesa eman diezaion.

Honakoa da kontsulta horretan herritarrei egingo zaien galdera:

- "Usurbilgo hondakinak tratatzeko, erraustea egoki iruditzen al zaizu?"
- “¿Consideras adecuada la incineración para el tratamiento de los residuos de Usurbil?"

Kontuan harturik

Espedientearen baitan emandako Idazkariaren txostena.

Antolakuntza Batzordeak, 2016ko otsailaren 18ko bilkuran, Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilletaren aldeko bozkarekin eta Josune Urkola eta Fermin



Usurbilgo Udala



Orue-Echevarriaren abstentzioarekin, gehiengoz, Udalbatza Plenoari egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

E R A B A K I A

LEHENA: Udalbatzarrak herri-kontsulta bat egiteko prozesuari babesa ematea.

BIGARRENA: Usurbilgo Udalbatzak aurreko galdera onartzea eta apirilaren 2ko 7/85 legeko 71.artikuluko izapidetza abian jartzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartu da.

6.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: 2016 MARTXOAK 8.

Josune Estellak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, EH Bilduk aurkeztu eta Antolakuntza Batzordean aztertua izan zen Erakunde Adierazpena aho batez onartu dute:


“2016 MARTXOAK 8 ERAKUNDE ADIERAZPENA

Feminismotik eraldaketa sozialera

Nazioarteko Egunak aldarri egunak dira, egoera desorekatuak agerian utzi eta eman beharreko aldaketen aldarri eta borroka egunak.

Martxoak 8a, emakume langileen borroka testuinguruan kokatzen da, 1908 urtean oihalgintzan prekarioki eta inbisibilizatuki lanean ari ziren emakume langileek grebari eutsi eta EEBBetako hainbat hiritan manifestaldiak burutu zituztenean.

Handik hona, emakume-gizon eta borroka feministari esker, asko izan dira emandako urratsak emakume eta gizonen berdintasunaren alde, baina ezin ahanzi dugu ere, gaurko egunean zoritxarrez, leku ugaritan badela eman beharreko pausurik emakumeen eskubide oinarritzkoenak eskuratzeko bidean.



Usurbilgo Udala



Gertukoan ere, Euskal Herrian bertan, lege eta araudiek berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarria badute ere, badugu eman beharreko urrats ugari. Izan ere, berdintasun faltsuaren diskurtsoa hedatzen dihardu, eta honek, berdintasunaren alde aktibatu beharreko neurriak moteldu besterik ez ditu egiten, egoera irreal bat irudikatuz.

Finantza krisiak eragindako murrizketek lehenik, eta ustez bertatik ateratzeko hartutako hainbat neurri ondoren, azken urteotako jazarpen bortitzena eragin dute jendarteren eskubide oinarritzkoenen galera orokorrean, eta bereziki emakumeen eskubideengan. Eta horrela, diskurtso eta praktiken arteko kontraesanak agerikoak ari dira izaten ari, parekidetasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren esparruan.


EHBildutik argi dugu egunerokoa eta guztion lana dela berdintasun erreala lortzeko lanari eustea, erakundeetan eta jendartean, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatuak izan daitezen, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rolak gaindituak izan daitezen, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezen, prekaritateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezen, besteren artean.

Eta hau guztia lortzeko, jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar dira, egungo murrizketak alboratuz.

Horregatik, 2016ko martxoak 8 honetan, Usurbil udalerrian ere badelako zer eginik, ondorengo ebazpen proposamena egiten dugu, 2016ko otsailaren 23ko osoko udal batzak onartu dezan.

ADIERAZPENA

- Usurbilgo udalerriko Osoko Bilkurak konpromesua hartzen du berdintasun aurrekontua bermatzeko urtez urte, berdintasun sailari dagokion garrantzia emateko eta berdintasun teknikariaren figura egonkortzeko.
- Usurbilgo udalerriko Osoko Bilkurak konpromesua hartzen du talde feministarekin elkarlanean jarraitzeko eta Emakume eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza lantzeko, herriko talde feministarekin elkarlanean.
- Usurbil udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko eta diru-laguntzetan genero klausulak ezartzeko.
- Usurbil udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko talde feministarekin elkarlanean.
- Usurbil udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.
- Usurbil udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du udal eskumeneko sail guztietan generoa zehar lerrotasunez lantzeko,
- Usurbil udalerriko Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek



Usurbilgo Udala



deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, aho batez onartu da.

7.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: SEAD-EN ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURRENA.

Xuban Zubiriak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, EH Bilduk aurkeztu eta Antolakuntza Batzordean aztertu den Adierazpen Instituzionala aho batez onartu dute:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SEADen ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURRENA DELA ETA


Gaur, 2016ko otsailak 27, 40. urteurrena betetzen da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Usurbilgo Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-uriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonak etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguekin burututako hainbat ikerkuntzak frogatu berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarietan.

Hori guztia dela eta, Usurbilgo Udalak ondorengo adierazten du:

- Berretsi egiten du RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari



Usurbilgo Udala



eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOaren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBEk hala aitortua.

- Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultza ditzatela beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.
- Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.
- Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobeitza dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.
- Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.
- Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eraman daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Beraz, aho batez onartu da.

8.- MOZIOA: GURE ELKARTASUNA EMAKUME ETA HERRI KURDUAREKIN.

Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, EH Bilduk aurkeztu eta Antolakuntza Batzordean aztertu den Adierazpena aho batez onartu dute:

“Gure elkartasuna emakume eta herri kurduarekin



Usurbilgo Udala



2016ko urtarrilaren 8an izan zen Pakize Nayir, Fatma Uyar eta Sêve Demir borrokalari eta burkideen hileta; gobernu turkiarren segurtasun indarrek hil zituzten urtarrilaren 4an Silopin.

Krimen honek Emakumeen Mundu Martxako kideok bereziki kolpatu gaitu. 2015ean krisiek eta gatazka armatuek ez digute eragotzi mundu guztian zehar gure 4. nazioarteko ekintza antolatzea, baita gatazkak zeuden lekuetan ere, landa eremuetan, periferietan, mendietan, erresistentzian diharduten emakumeak dauden eskualdeetan... Nazioarteko ekintzaren baitan, Karabana feminista europarra Turkian kokatuta dagoen lurralde kurduan hasi zen, bertako emakumeei beren gorputz eta lurraldearekiko autonomia eta autodeterminazioa lortzeko borrokan babesa eta indarra emate aldera. Halaber, emakumeen erresistentziak sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalaren aurka eraikitako alternatibak ezagutaraztea zen beste helburua.

2015eko martxoaren 6 eta 7an Turkia eta Siria arteko mugaren bi aldetako eskualdeko milaka emakume Nusaybinen bildu ziren (mugak banatutako hirian), eztabaida, kultur ekitaldi eta manifestazioek osatutako foro batean. Jendarte berri baten eraikuntzan eginkizun garrantzitsua duten emakumeek tokiko komunitateen autodefentsan garatzen dituzten esperientzien berri eman zieten elkarri.


Zoritxarrez, azken aldion turkiar gobernuaren eta herri kurduaren arteko gatazka berriro lehertu da, 2015eko ekainean izan ziren hauteskunde turkiarren ostean bake-elkarrizketek porrot egin baitzuten. Gatazkaren fase berri honen ondorioa ehundaka zibilen heriotza (gehienbat emakume eta haurrak), ehundaka zauritu eta milaka espetxeratu izan da. Udal-batzar herritar kurduak erabaki dute autodefentsa dela lurralde kurduko hirietan estatuko poliziak darabilen bortizkeriari aurre egiteko modua. Herritar gobernuetako 17 alkate espetxeratu dituzte, baita Sara Kaya ere, zeinak Nusaybinen hartu gintuen nazioarteko 4. ekintza zela eta.

Autogobernua aldarrikatu duten hiriei eraso egiten diete; etxeratze agindua ezarri zaie, baita argindarra, ura eta komunikazioak eten ere. Kanean dabilen edonor, haurra, adinekoa, haurdun edo gaixorik dagoen emakumea dela ere, frankotirataileek hil egiten dute. Zauriren bat jasoz gero, pertsonak ezin dute medikuarengana jo. Jendeak ezin ditu bere hildakoak ehortzi. Etxeratze aginduak herritarrak etxean bahituta mantentzen ditu, jatekorik ere ez dutela; honek osasun egoera larriagotzen du. Hartara, berezko abortoen kopurua gehitu egin da. Nusaybinen etxeratze agindua zazpi aldiz ezarri dute; azkenak, abenduaren 14an ezarri zenak, indarrean dirau oraindik.

Azkenik, indar polizialek hiru emakume ekintzaile kurdu hil zituzten joan den urtarrilaren 4an Silopin. Euretako bat, Sêve Demirr, Emakumeen Mundu Martxaren 4. nazioarteko ekintza hasteko ekitaldien koordinatzaile izan zen.

Ekintza:

Hilketa politiko hau salatu eta dei egiten diegu koordinakunde nazionaleri turkiar enbaxaden aurrean protesta ekitaldiak egin ditzaten eta gutunak bidal



Usurbilgo Udala



diezaizkieten hiru emakume ekintzaile kurduen hilketari gaitzesteko eta honakoak exijitzeko:

- Inpunitatearen amaiera eta krimenaren ardura dutenek justiziaren aurrean erantzun dezaten
- Ez dezatela ekintzaile politiko, giza-eskubideen defendatzaile eta kazetari gehiago hil
- Hiri kurduetan amai dadila etxeratze agindua
- Indar militar eta paramilitarrak erretira daitezela hiri kurduetatik
- Su-etena eman dadila eta bake-elkarrizketak berriro hasi
- Pertsonak, baina batez ere emakumeek, pairatzen dituzten abusu, irain eta tratu txarrak amai daitezela”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, aho batez onartu da.

Gai ordenaz kanpo:

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAK ONARTUTAKO HONDAKINEN GOI KUDEAKETA ZERBITZUGINTZAREN 2016 EKITALDIRAKO TARIFEN AUZIA.

Alkateak adierazi du azken momentuan presazko prozedura bidez erabaki dutela otsailaren 17an izenpetutako dekretu bat Udalbatzarretik pasatzea. Zehaztu du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2015eko abenduaren 20ko batzar orokorrean 2016ko ekitaldiari begira tarifan igoera bat erabaki zuela eta ikusirik tarifa igoera hori oso kaltegarria zela Usurbilgo udalaren eta herritarren interes eta eskubideetarako, erabaki hori auzibidera eramatea eta horretarako abokatua izendatzea erabaki dela dekretu horretan.

1.- Gai ordenean sartzea berrestea:



Usurbilgo Udala



Andoni Atxegak adierazi du dekretua otsailaren 17an sinatu zela eta ez dela azken momentukoa. Beraiek atzoko egunez izan zutela dekretu honen berri eta ezin izan dutenez landu, puntu hau mahai gainean uztea eskatu dute.

Alkateak adierazi du presazko prozedura bati buruz ari direla eta aurrera egin ahal izateko beharrezkoa dela dekretua gaur plenoak berrestea.

Halere, beharrezkoa ikusten bada, pleno berezi bat ere egin daitekeela dio gai hau tratatzeko.

Andoni Atxegak dio erabaki bat hartu ahal izateko beraiek baloratu beharra dutela nor kontratatzen den, kostua zenbatekoa den, etab.

[18:40 direnean, etenaldi bat egin da.]

Plenoari ekin zaio berriz ere eta alkateak galdetu du ea ze informazio beharko luketen.

Alaitz Aizpuruak adierazi du erabakia dekretuz hartuta dagoela eta erabaki hori ez dela aldatuko. Halere, edozein azalpen edo informazio emateko ez dutela inongo arazorik gaineratu du.

Andoni Atxegak galdetu du ea aurrera jarraitu ahal izateko gehiengo osoa behar den eta baietz erantzun zaio. Orduan adierazi du gai ordenean sartzearen aldeko bozka emango luketela eta ondoren abstenitu.

Batzarkideek aho batez berretsi dute puntu hau gai ordenean sartzea.

2.- Dekretua berrestea:

Alkateak gaiari buruzko azalpenak eman ditu. Andoni Atxegak adierazi duen moduan, gai hau ez da oraingoa, baina ez da zaharra ere. GHK-k 2016ko ekitaldirako onartutako tarifak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abenduaren 31n argitaratu zirela eta beraientzat ustekabe handia izan zela erabaki hori adierazi du, izan ere data horretarako udalaren Aurrekontuak onartze bidean zituzten, plenoak haserako onarpena emana zuen, eta igoera sekulakoa zela ikusi zuten.

Harrezkero, San Markoko Mankomunitatean informazioa eskatu dutela eta gaia kokatzen saiatu direla aipatu du.

Bere ustez gai honek benetan larritasuna adierazten duten osagaiak ditu.



Usurbilgo Udala



Hasteko, zalantzan jartzekoa dela dio kontzeptua bera tarifa den edo tasa izan beharko lukeen. Beraien ustez GHK-k ematen duen zerbitzua derrigorrez herritarrei eman beharreko zerbitzu bat da, beraz, ordenantza fiskal baten arabera arautu beharko litzateke eta tasa izaera gehiago izango luke tarifa izaera baino. Tasa den neurrian, eragindako gastuak baino gehiago kobratzea benetan arraroa dela azaldu du. Hau horrela, honek azterketa juridiko bat eskatzen duela esan du.


Bigarrenik, hemen gastu batzuei buruz hitz egiten ari garela dio, zehaztu gabe zer gasturi egin behar dion aurre GHK-k, hau da, orain bat batean horrelako igoera batekin ze gasturi egin nahi dion aurre. Hor ikusten dutena da 2011n hartutako erabaki batzuen zama jada gipuzkoarren patrikara iristen ari dela. Gainera, zama horren ordainketa oso modu bidegabean planteatzen dela azpimarratu du. Atzean dagoen azpiegitura garestia errauste-planta dela adierazi du eta errauste-plantaren defendatzaileek ere esaten dute bio-hondakinak erretzeko zerbitzua ez duela eman behar. Orduan, baldin eta errauste-planta gipuzkoar guztion patrikatik finantzatu behar bada, logikak aginduko lukeela dio errefusa sortzen den arabera ordaintzea errauste-plantaren gastua, baina kasu honetan, onartu diren tarifetan ez da bakarrik errefusa igotzen, bio-hondakinen tratamendua ere igo egiten dela gaineratu du. Hau, batetik, bidegabekoa dela deritzote eta, bestetik, Gipuzkoan esaten den politika, hau da, birziklatzea, etab.k egitearen aurkako neurri bat da, izan ere bio-hondakinak bereiztea edo gaika tratatzea penalizatu egiten da.

Bestalde, bidegabekeria ez dela hor bukatzen aipatu du, izan ere usurbildarrok San Markoko kide garen neurrian, tarifa/tasa hauek San Markoren bidez ordaintzen ditugu eta bio-hondakinak ordaintzeko halako hobari batzuk edo planteatzen dira, %15-35 bitartekoak, eta hobari horiek kalkulatzeko egiten dena da San Markok sortzen duen bio-hondakin, errefus portzentajearen arabeko kalkulu bat. Horrek esan nahi du usurbildarrok, nahiz eta gure gaikako bilketa tasak oso onak izan, ordaindu behar dugula mankomunitatean beste herri batzuek gaika biltzen ez dituztenen arabera, hau da, dena San Markoko zakura doa eta horren arabera aplikatzen zaigu usurbildarroi tarifa/tasa hori, horrela usurbildarrok guk sortzen ez ditugun hondakinengatik gehiago ordaindu behar dugu. Lehen esan bezala, hori bidegabekoa dela deritzote eta baita ere guztiz desmotibatzailea eta kaltegarria benetan hondakin politika jasangarri eta aurrerakoi bat egiteko.

Udal hau derrigortuta dagoela uste dute herritarren babeserako auzi-bidera jotzera usurbildarren eskubideak jokoan daudelako.

Estimazio bat eginda, kalkulaten dute igoera honek 60.000-70.000 euroko igoera bat suposatuko duela eta kontutan hartu behar dela dio diru kopuru horrekin beste gauza batzuk egitea aurreikusten zutela. Beraz, 2016ko aurrekontuei begira kolpe handia dela adierazi du eta aurrera begira ere urtez urte errepikatuko dena.

Hau guztia kontutan hartuta, behar beharrezkoa ikusten dute abokatu baten laguntzaz gaiaren jarraipen estua egitea eta ikustea Usurbilek ze aukera dituen bere eskubideak babesteko.



Usurbilgo Udala



Andoni Atxegak etenaldi bat egitea eskatu du taldean gaiari buruz hitz egin ahal izateko.

[18:50-18:55 tartean etenaldia egin da]

Bilkurari jarraipena eman zaio eta Andoni Atxegak galdetu du ea zergatik izendatu den abokatu hori eta ea zenbat kostako den, eta baita ere galdetu du ea udaleko baliabideekin ezin al den egin.

Alkateak erantzun dio Yolanda Lopez de Luzuriaga izendatu dela horrelako auzietan esperientzia duelako eta perfil egokia duelako.

Kostuari buruz adierazi du dekretuan ez dela zehazten eta auzi hauek zenbateraino emango duten ere ez dakiela.

Idazkariak gaineratu du hau kontratu txiki bat dela, eta kontratu hauek 18.000 euro artekoak izaten direla, lana egin eta gero faktura gehitzen zaiola, eta aurrez zenbatekoa zehaztu beharrik ez dela izaten.

Alkateak azken galderari buruz erantzun du etxean oso teknikari onak dituztela, baina momentu honetan duten lan bolumenarekin eta gai honek eskatzen duen dedikazioarekin ezinezkoa dela.


Alaitz Aizpuruak gehitu du abenduan onartu zenetik orain arte ahalegina egin dela San Markon eta GHKn gaia eztabaidatu, arrazoitu eta ahal den neurrian negoziatzeko, baina beste alderditik ez zaiela batere erraza jarri, ez diela batere lagundu, ez dutela ezertarako aukerarik eman salatu du. Bere ustez gai hau gai ekonomikoa baino haratago doan gai bat da eta interesak defendatu beharrean aurkitzen dira.

Andoni Atxegak esan du beraien botoa aurkakoa izango dela zeren lan hau udaletxetik bertatik egin beharrekoa izan beharko bailuke.

Batzarkideek, 2016ko otsailaren 17ko 2016/0128 dekretua gehiengoz berretsi dute.

“2016/0128 DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE, Usurbilgo Udaleko Alkate-Lehendakariak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1.k) artikuluan xedatutakoaren arabera,



Usurbilgo Udala



IKUSIRIK

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak 2015eko abenduaren 22ko bileran hondakinen goi kudeaketa zerbitzugintzaren 2016 ekitaldirako tarifak onartu zituela (2015eko abenduaren 31an argitaratu zituen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean).

Ebazpen hori kaltegarria dela udal honen interes eta eskubideetarako.

KONTUTAN HARTURIK

Batetik, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 21.1.k) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 48. eta hurr. artikuluetan xedatutakoa.

Bestetik, Sektore Publikoko kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarrian zehaztutako eskumena eta araudi bereko 138.3., 111. eta 23. atalen arabera Usurbilgo udalaren izenean aritzeko ordezkartzaren kontratazioa kontratu txikia dela, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENA: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak 2015eko abenduaren 22ko bileran hondakinen goi kudeaketa zerbitzugintzaren 2016 ekitaldirako tarifak onartu zituen ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztea udal honen interesak defendatzeko.

BIGARRENA: Yolanda Lopez de Luzuriaga Beltran de Heredia auzi honetarako abokatua izendatzea, prokuradoreen alde emanda dauden botere guztiak erabiliz udal honen izenean jardun eta udala defenda dezan.


HIRUGARRENA: Kontratu txiki honek eragindako gastua 2016ko aurrekontuko 1.1000.226.920.00.04 partidaren kontura joango da.

LAUGARRENA: Udalbatza Plenoari akordio honen berri ematea, ospatzen duen hurrengo bilkuran, erabaki hau berretsi dezan.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri izendatutako abokatuari eta kontu-hartzaileari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.



Usurbilgo Udala



Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, dekretua gehiengoz berretsia izan da.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Jone Urdanpilletak hitza hartu du aurreko plenoan Carlosek egin zituen bi eskaerei erantzuteko.

Batetik, adimen urritasuna dutenen geltokiari buruz azaldu du erabiltzaileek hautatutako lekua dela. Hala ere, gaineratu du Ixabelek berak proposatuko ziela geltokira edo Bordatxoko errotondara geltokia aldatzea.

Bestetik, adierazi du Carlosek aipatu zuen herritarrarekin irisgarritasun arazoak ikusten egon zela eta egia dela dio behar batzuk badaudela eta Bordatxoko bi zebra-bideei lehentasuna emango diela.

Amaitzeko, alkateak adierazi du ostegunean gobernu programaren aurkezpena egingo dela Sutegin arratsaldeko 19:00etan eta gonbidapena luzatu die.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:10ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.